

Erdiz bizirik



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Datu gutxi batzuk gaia ezagutzen ez duenarentzat: Erdiz 476 hektareako bazkalekua da. Herri lurra da, Baztanen kokatua, eta baztandar guztiek erabiltzen ahal dute. Zainketa Bereziko Eremu baten barruan dago. Bertara eramaten dute azienda abeltzain baztandarrek. Baztanen lehen sektoreak pisua du oraindik; esan daiteke Nafarroako abeltzaintza esplorazioen %15 dagoela bertan, gutxi gorabehera, batezbesteko bat eginez.

Magna (Magnesitas Navarra) multinazionalak proiektua egin du Erdizen magnesita ateratzeko meategia egiteko. Proiektua 2001ekoa da, baina hainbat gorabehera tarteko –besteak beste, proiektu hori bera Erdizetik oso gertu, Zilbetin, egiteko Espainiako Auzitegi Gorenak ezarri zuen debekua, 2015ean–, 2023an gaude eta proiektuak hor dirau: gauzatu gabe, baina enpresaren bultzada berriarekin.

Proiektuak aurkakotasun handia sortu du Baztanen. Behin berriro, multinazional baten interesak eta herritarren aurkakoak dira. Baztango Udalak behin eta berriz eskatu du erreferenduma egiteko, herritarren iritzia jakiteko. Baina Espainiako Gobernuak ukatu egin du

Deigarria da
governuek erakusten
duten erabateko
mendekotasuna
multinazionalen
interesen aurrean.
Aspaldi esana da, eta
gero eta argiago dago,
nork agintzen duen
hemen

erreferendumaren aukera.

Gaurgero, zenbat holako ikusi dugu? Kontu zaharra dirudi. Halakoetan gauza batzuk beti errepikatzen dira. Niri hauek iruditzen zaizkit deigarrienak, beste asko egoten diren arren.

– Governuek erakusten duten erabateko mendekotasuna multinazionalen interesen aurrean. Aspaldi esana da, eta gero eta argiago dago, nork agintzen duen hemen. Kasu honetan, oharra har-

tzekoa da parlamentuaren gehiengo proiektuaren alde agertu zela, bere burua “sozioberdetzat” duen alderdi bat ere barne.

– Natura babesteko legeen ahulezia erreala.

– Udalen botererik eza. Kasik, auzokoaren arteko liskarrak kudeatzea da euren egiteko bakarra. Iruñean estrategikotzat jotzen den plan bat dagoelarik, dagokion udalak jai du, udalaz gaindiko eragin plan batek ezabatuko baitu udalak esan dezakeen ezer.

– Aurrekoaren ondorioz, jokabide demokratikorik eza: planak zuzenean ukitzen dituen herritarrek ez dute beren iritzia ematen ahal. Debekatu egiten zaie, alegia.

– Enpresak eta administrazioak eztabaida iluntzeko erabili ohi dituzten estrategiak: egia eta gezur erdiak, berez aski konplikatua ohi den legeriaren mataza muturreraino bihurritzea, berde itxurako propaganda... horretarako behar diren kontsultoreen eta profesional “independenteen” laguntza daukate (ondo ordainduta).

– Gizartearen gehiengoaren ezaxola, apaingarritarako erabili ohi den saloiko ekologismoa gorabehera. ●



aleka

**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa

**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus

- BASERRITARRAK SAREAN
- AGROEKOLOGIA
- BIOANIZTASUNA
- BERTAKO EKOIZPENA